

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA: SANTURTZIKO LAGUNTZA-ZENTROAK COVID-AREN KASU POSITIBO DIREN EGOERA AHULEKO PERTSONEI OSPITALE-ALTA EMAN AURREKO BALIABIDE IZATEARI UZTEKO ERABAKI-PROPOSAMENA

Gure inguruan koronabirusak kutsatutako kasuak –COVID-19, koronabirus-19 bidezko gaixotasun infekziosoa– hedatu egin ziren, eta hedapen horrek eragin nabarmena izan zuen erakunde honen adinekoen arloko eta arlo soziosanitarioko zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileengan, haien zaurgarritasun-egoera bereziaren ondorioz. Hori dela eta, aparteko neurriak hartu behar izan ziren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin adostuta, eta laguntza-sare bat jarri zen abian, Covid-19aren kasu positibo ziren egoera ahuleko pertsonen (laguntza-beharrizan handirik eta mugikortasun arazo larririk ez zutenei) ospitale-alta eman aurreko baliabide izateko.

Horren lege-esparrua izan zen alarma-egoera eta larrialdi sanitarioko egoera deklaratu zutela, dekretu bidez, Espainiako eta Euskadiko gobernuek, hurrenez hurren. Araudi hau kontsultatu: 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena; 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziari buruzkoa; Martxoaren 19ko SND/265/2020 Agindua, zeinaren bidez adinekoen egoitzei eta zentro soziosanitarioei buruzko neurriak hartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz; eta, azkenik, Osasuneko sailburuaren martxoaren 27ko Agindua, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak zabaldu eta interpretatzeko. Azken agindu horren hirugarren apartatuan, baimena ematen zaie foru-aldundietan gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duten organoei, aginduotan ezarritako neurriak aplikatu ditzaten.

Adierazitako xedapenetan ezarritakoaren babesean, eta Gizarte Ekintza Sailaren ekimenez, GUFeko Gobernu Batzordeak, 2020ko apirilaren 17an eginiko bileran (3/20 akta zk.), Santurtziko laguntza-zentroa (Covid-19aren kasu positibo diren egoera ahuleko pertsonen ospitale-alta eman aurreko baliabide izateko) irekitzea erabaki zuen, Santurtziko Itsastarren Etxean.

Orain, gaixotasunaren eboluzioa positiboa da, eta, hori dela eta, egungo egoera guztiz desberdina da, baliabide hori abiaraztean egon zenarekin alderatuta. Hori horrela dela egiaztatu daiteke Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruak maiatzaren 12ko datarekin eman zuen txostenean: *“En cuanto a la URSSE Santurtzi, acoge a la primera persona el día 21 de abril, en unas circunstancias en la que las tendencias eran ya de clara mejoría de la situación. Se destina a un perfil más liviano y con clara orientación sociosanitaria. Además, las personas que en ella ingresan tienen una expectativa de alta a partir del día 14 de estancia. En las tres semanas que lleva abierta ha atendido a 11 personas, de las cuales 8 ingresaron en los tres primeros días, 2 en la segunda semana (1 de ellas vía SFUS) y 1 en esta”*.



Txosten horretatik ondorioztatu daiteke, halaber, zentroak berrantolatzeko beharrezana dagoela, eta Covid-19aren ondoriozko laguntza Birjinetxe Laguntza Zentroan emango dela.

Beraz, alde batetik, Santurtzin dauden erabiltzaileak (gutxi) lekualdatu nahi dira; eta, beste alde batetik, langileak ere lekualdatu nahi dira –bitartekoak ere bai-, lantoki eta zerbitzu horretara edo beste batzuetara, kontratuak indarrean dauden bitartean. Langileak ordeztzen badira, ordezkatzeko ari direnek ordezkatuaren baldintzak izango dituzte. Kontratuen indarraldia mantentzea erabakienez, eta ez etetea, interes orokorra eta langileen eskubide indibidualak bateragarri egin nahi dira, eta benetan betetzen direla bermatu.

Langileen eskubideak betetzeko, beste lan-zentro batzuetara lekualdatu behar dira, geroago zehaztuko denarekin bat.

Egin nahi diren lekualdatzeak (aldi baterakoak eta behin-behinekoak) lekuz edo lantokiz aldatzea ekarriko dute, ez egoitzaz, eta Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 39. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat egingo dira, zuzendaritza-boterearen adierazpen gisa; lekualdatze horiek muga hau besterik ez dute izango: aurretik Erakundearen ordezkari soziala zein den jakitea (maiatzaren 13an gai honi buruzko informazioa eman zitzaion Erakundeko ordezkari sozialari, bitarteko ez-presentzialen bidez).

Eta, azkenik, adierazi behar da erabaki hau GUFEn Herri Administrazio gisa auto-antolaketa duen ahalmenaren adierazpen bat dela eta bat datorrela Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legean jasotako aurreikuspenekin, 16/1997 Legeak emandako idazkera kontuan hartuta, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean, eta lan-kontratudun langileentzat aplikatzekoak diren gainerako lege-xedapenetan ezarritakoekin.

GUFEn Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, gai hau ebazteko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio.

Aurreko guztia kontuan hartuta, idazki hau sinatzen duenak honako proposamen hau aurkezten dio Gobernu Batzordeari, onar dezan

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Xedatzea Santurtzi laguntza-zentroak utziko diola Covidaren kasu positibo diren egoera ahuleko pertsonen ospitale-alta eman aurreko baliabide izateari; jarduera hori Santurtziko Itsastarren Etxean eman du, hala erabaki baitzuen Batzorde honek apirilaren 17an.

Bigarrena.- Baimena ematea gaur egun zentro horretan dauden pertsonak lekualdatzeko Gizarte Ekintza Sailak erabakitzen duenaren arabera.

Hirugarrena.- Eranskinean adierazten diren pertsonak lekualdatzea, eranskinean zehazten diren baldintzak eta nondik norakoak kontuan hartuta:



Aipatzen diren laneko baldintzak, lanaldiak eta/edo lanpostuen egutegiak edo karteldegia izango dira lanpostu berriari dagozkionak. Adierazten diren pertsonak ordezkatzeko ari direnek ordezkatuaren baldintzak izango dituzte.

Laugarrena.- Interesdunei jakinaraztea hala erabaki hau nola haren aurreko txostena, zeina arrazoibide gisa gehitzen zaion erabakiari, eta adieraztea ezen, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, demanda aurkez dezaketela beronen kontra, lan-arloko epaitegian, jakinarazpena jaso eta hurrengo bi hilabeteetan. Horrez gainera, egokitzat jotzen duten beste edozein ekintza erabili ahal izango dute.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, goiko txosten-proposamenak erabaki honen arrazoitze gisa balio du.

Bosgarrena.- Gerente andreaki ahalmena ematea erabaki hau behar bezala betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan eta, bereziki, zentro edo zerbitzuetako karteldegia eta lanaldiak ezartzeko direnak.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Ekintza Saileko Zentroen Erregistroari, Lan eta Justizia Sailaren mendeko lan-agintaritzari, Osasun Saileko osasun-arloko agintariei eta Mutualia erakundeari, jakitun izan daitezen lan-zentro horren itxieraz.

Zazpigarrena.- Erabaki hau helaraztea dibisio eta departamentuetako buruei, Erakundeko ordezkari sozialari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

Zortzigarrena.- Erabaki honek maiatzaren 18tik aurrera sortuko ditu ondorioak, GUFEn iragarki-oholean, web-orrian eta intranetean argitaratzen den eguna gorabehera.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 12an

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO
IDAZKARIA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte

ERANSKINA

SANTURTZIKO LAGUNTZA-ZENTROAREN ITXIERAK ERAGITEN DIEN LANGILEEN ZERRENDA (*)

- Francisco Javier Franco Pérez jauna, gelazainburua, Birjinetxe Laguntza Zentrorako lekualdatuko da aldi baterako eta behin-behinean.
- Luis M^a Tobalina Martínez jauna, ordenantza, ídem.
- Fernando García Aguilera jauna, ordenantza, ídem.
- María José Simón Díez andreak, erizantzako gainbegiraleak, Birjinetxe Laguntza Zentroan hasieran zuen atxikipena izango du berriro ere.
- Ángela Segovia Muñoz andrea, EUD-erizaina, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Aitor Abellanal Sáez jauna, Erizaintzako gradu ikaslea, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Amaia Gallardo Beitia andrea, Erizaintzako gradu ikaslea, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Sara Gerediaga Zuloaga andrea, osasun-laguntzailea, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Olga Uriondo San Pedro andrea, osasun-laguntzailea, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Catalina Bobe andrea, osasun-laguntzailea, test-probak egiten dituen taldera lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Yolanda Abarrategi Ceregido andrea, osasun-laguntzailea, Birjinetxe Laguntza Zentrorako lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Carmen Brey Neira andrea, osasun-laguntzailea, Birjinetxe Laguntza Zentrorako lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Inmaculada Prado Allende andrea, osasun-laguntzailea, Birjinetxe Laguntza Zentrorako lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.
- Mercedes Castrillo López andrea, osasun-laguntzailea, Birjinetxe Laguntza Zentrorako lekualdatuko da aldi baterako, behin-behinean.

OHARRA

(*) Langileak ordeztzen badira, ordezkatzeko ari direnek ordezkatu behar izango dituzte.